

+

BIDAIA ETA MENDI KRONIKEN LEHIAKETA (ETA V)

Badira sei urte txirrindularitzan lehiatzeri utzi nionetik. Geroztik, bizikletaren beste aurpegi bat ezagutu dut: alforjak eta kanpin denda hartuta urtean ihesaldi pare bat egitearena. Bizikletaz, ez azkarregi ez mantsoegi, herrialde bateko kulturarekin eta jendearekin zuzen konektatzen da. Nire azken esperientzia lehen izan da Asiako kontinentean, Taiwanen.

Western Foreigner bat ekialdetik

Unai Arriola Campillo

Egun bi behar dira bizikletaz Taoyuaneko aireportutik Taichungera heltzeko (Taiwan). Egun biko geldialdia egin dut hemen, Min Hsieh-en etxean. Duela hiru urte Alemanian urtebetez lan egin ostean, taiwandar neska horrek etxera bizikletaz bueltatzea erabaki zuen. Hamar hilabetez pedalei eraginda lotu zituen Berlin eta Pekin –sasoi hartan Txinan bizi zen–. Orain, abentura haren liburua idazten dabil, eta aurkezpena gongoratzen du. Hala ere, mandarin txineraz izango denez, bitartean hirian zehar gaitzea aukera hobetzat jo dut. Asiako egunerokotasunean ondo integratzeko utzi didan scooter zaharra hartuta, banao Taiwaneko trafiko arau ulertezin guztiak hautsi janari postu eta moto tailerrez jositako kale desordenatuetan barrena.

Egun bi nahikoa ditut Asiako hiri kaotiko honekin lehen kontaktua egiteko, eta momentuz aurrera noa, mendirantz. Izan ere, Taiwanek, bere txikitasunean, iparretik hegora 3.000 metrotik gorako 100 tontorrez irla zeharkatzen duen bizkarrezur sigisagatsua dauka.

Ustez, datozen egun biak lasaiak dira, mendi garaietara iritsi arteko hurbilketa. Alabaina, uharteak punturik zabalenean 140 kilometro baino ez ditu; hortaz, barnealderantz jotzeak maldan gora egitea dakar, eta Tai-

TAIWANI ITZULIA

chungetik irteten majo sufritu dut. Hurbilketa egiteko esperonuen maldaxoaren tokian, aldatzar bukaezina dago, eta, janari eta ur erreserbak agortuta, larri heldu naiz gora. Horrela ikusi du paretik motoan pasatu eta nire ondoan geratu den aitona-amon bikoteak, eta eserleku azpitik denetariko jan eta edana eman dizkide. Hizkuntzaren trabak elkarriketa ezinezko egiten duen arren, jendeak laguntzeko duen borondateak egiten du benetako marka; etxerako itzuleran memoriam grabatuta geratzen dira momentuok. Hiriko estatua, katedral edo museoko margolanak segituan ezabatzen ditu nire memoriak. Jendea ez.

Iluntzean, kanpatzeko bazter baten bila, Nantou hiriko irteeran

unibertitate campus bat ikusi dut. Handi itxura hartuta, inguruko lorategiak zabalak izango direla kalkulatu dut, eta abuztua izanda hutsik egongo dela. Sarrean, hiru bizkartzain. Nire txinera tankerako lau hitzekin eta euren ingeles hankamotzarekin izan dugun berrietasun ulertu dudana da liburutegi atzeko zelaian gaua arazorik gabe pasa dezakedala. Hurrengo goizean kanpin denda batu eta irteten hasi naizenean, landak sarrean ikusi ez nuen kartel multzo baten paretik pasatu naiz. Denak txineraz daude, eta ez ditut ulertzen, baina batek suge baten marrazkia dauka arrisku ikur handi batekin. Liburutegi atzean lasai kanpatzeko, edo ez kanpatzeko esan ote zidaten? Eskerrak ez nion atzo gauaz erreparratu...

Jana, edana eta loa dira bidaiariaren ardura bakarrak. Bizimodu simple horrek momentu magikoak dakartza. Mendiko herririk batean, suhiltzaileei galdetu diet futbol zelaian kanpa naitekeen. Sarrean dagoenak baiez dio, arazorik ez; baina ea zergatik kanpatuko naizen eurekin lo egiteko aukera izanda, gainera dutxa eta afaria barne.

Taiwandar asko ikusi ditut harro nik oportetarako Taiwan aukeratu izanaz. Irla txiki hau oraindik ez da turismoaren produktibhurtu. Taipei kapitala kenduta, uhartearen edozein bazterreara joanda ez da kanpotarrik ikusten, arrotz bakarra izan naiz ehunka lekutan, eta jendea atentzia ematen diot. Harritu eta poztu egiten dira *western foreig-*

Alishan, tea landatzen den eremuaren edertasuna. UNAI ARRIOLA CAMPILLO

ner (mendebaldeko atzeritarrak, horrela bataiatu naute) bat ikusteaz.

Gosaldu ostean martxan jartzeko naizela, paper zati batean heldu bat eman didate. «Mendiren beste aldean dauden suhiltzaileak gure lagunak dira, badute zure berri eta gustura hartuko zaituzte, *push hard*, ea helitzen zaren». Nolatan ez naiz helduko ba, holako pozek ematen dituen indarrarekin! Bigarren gaua suhiltzaileekin pasatu ostean, horiek ere kontu berarekin etorri zaizkit. «Zure hurrengo helbideko suhiltzaileak abisatuta

Jana, edana eta loa dira bidaiariaren ardura bakarrak. Bizimodu simple horrek momentu magikoak dakartza

daude; dutxa eta ohea itxaroten dituzu Tainanen». Horiek bai artistak!

Horrela ba, mendebaldeko kostara, hiriak eta barnealdeko mendiak tartekatuz hego muturrera iritsi gara, Kentingera. Gara diot, ordurako bidean ezagututako Raviv kanadarrak bidaiarekin batera iritsi gara. Txinan itzultzaile eta irakasle bezala bi urtez lan egin ostean, etxera bueltatu aurretik Taiwan bizikletaz ezagutzen dabil

hura ere. Raviv antropologoa da, apunte historiko, jakituria eta kultura ekarpenaz aberastu nauena.

Kentingetik, hego muturrera inguratuz, ekialdeko kostara 3.000 metroko mendirik igo gabe pasatzeko aukera dago. Mendikateak Taiwan ezberdin bi banatzen ditu. Mendebaldean, Txinari begira, hiriak, jendetza eta *made in Taiwan* industria. Ekialdean, Pazifikoko kostan, landa eremua. Uhartearen txinatar influentziarik txikiena duen lekua eta aborigenen bizitokia. Hasiera batean ekialdean ahalik eta denborarik

gehien emateko asmoa nuen arren, aireportuaren kokapenak, bertakoein egindako lehen kontaktuek eta Asiako hiri bizimodua ezagutzeko gogoak planak aldatu eta iparretik hegora mendebaldeko kostan zehar jaistera eraman naute. Planen bat –batekotasuna, inprobisazioa eta malgutasuna bidaia onoren oinarri dira.

Nahiko azkar sumatzen da Taiwan bien arteko aldea. Mendebalde industrial estresatutik, denboran izozturiko bizimoduko eta doako Wifi sarrerik gabeko ekialde lasaira. Hori gutxi ez, eta ekialdeko kostan sartzeaz batera Pazifikoko



